




Zerbitzuetako negozio zifrak marka hautsi du


Zerbitzuetako negozio zifra
Urte bakoitzeko batez besteko indizea



2021ean, zerbitzuetako negozio zifra %15,4 hazi zen aurreko urtearekin alderatuta. Horri esker, urteko batez besteko indizea 122,5ekoa izan zen, serie historikoaren mailarik altuena baita. Bestalde, enpleguak ere portaera ona izan zuen eta %3,0 areagotu zen 2020arekin alderatuta.

Industriako negozio zifrak gora egin zuen 2021ean

Industriako negozio zifra
Urte bakoitzeko batez besteko indizea




Industriako negozio zifra %18,3 hazi zen abenduan, eta 2021. urtean, oro har, %18,2. Igoera handia izan zen arren, ez zituen pandemiaren aurreko emaitza altuak berdindu, ez 2018koa ez 2019koa, nahiz eta urte horiekiko aldea nahiko txikia den.



Urtarrileko gaualdiak 2021ekoak ia halako hiru izan dira

Gaualdiak Euskadiko hoteletan
Mila




EAEko hoteletan egindako gaualdiak %167,3 hazi ziren 2022ko urtarrilean, aurreko urtearen aldean.

Hazkunde handi hori omicron aldaeraren hedapena kontrolatzeko jarduerak murrizketen testuinguru batean gertatu zen, eta, beraz, ezinezkoa izan zen pandemiaren aurreko balioak osorik berreskuratzea.

Euroguneko PMI konposatuak gora egin du otsailean

Euroguneko PMI konposatua
Indizea



Aurreko hilabeteetako moteltzearen ondoren, **otsailean euroguneko PMI konposatuak hobera egin zuen 55,8 mailara iritsi arte, hazkunde erritmoa bizia dela adierazten baitu.** Pandemia geldiarazteko neurrien erlaxazioak zerbitzuak gorantz bultzatu zituen, eta, aldi berean, industrian produktuen entregien atzerapenak (botila lepoak) murriztu ziren.